

“Aldez aurreko kontsulta publikoa, foru agindu hau aldatzeko proiektuari buruzkoa: 26/2012 Foru Agindua, martxoaren 20koa, Euskara (Nafarroa) irakaskuntza espezialitatea ezartzen duena.”

XEDEA edo DESKRIBAPENA:

Aldez aurreko kontsulta honen xedea da iritziak jasotzea, kontsulta eginez foru agindu jakin bat aldatzeko proiektuaren eraginpean gerta litezkeen herritarrei eta ordezkarietara handieneko erakundeei. Foru agindu hori da Euskara (Nafarroa) irakaskuntza espezialitatea ezartzen duena.

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Foru agindu horren bidez, egokitu nahi da maisu-maistren kidegoko irakaskuntza espezialitate horren izena, gaur egun indarrean diren legeekin bat egin dezan.

b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.

Maisu-maistren kidegoko irakaskuntza espezialitatea arautzen duen Foru Aginduak ezartzen du ezen espezialitate horren izena, gaztelaniaz, “Vascuence (Navarra)” dela. Hala ere, ekainaren 27ko 9/2017 Foru Legearen bidez aldaketak egin ziren Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen izenburuan eta artikuluetan, eta honako hau ezarri zen: “Euskararen Foru Legea aplikatzearen ondorioz garatu edo xedatzen diren xedapen eta egintza guztien gaztelaniazko testua izendapen berri horretara egokituko da, eta, hala, “euskerak” izendapen berria erabiliko da “vascuence” hitzaren ordez”.

c) Arauak zer helburu dituen.

Maisu-maistren kidegoko irakaskuntza espezialitatea arautzen duen Foru Agindua aldatzearen helburua da espezialitatearen izena egokitzea, bat egin dezan araudi berriarekin.

d) Egon litezkeen beste aukera batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Irakaskuntza espezialitatearen izendapena egokia izan dadin, beharrezkoa da Euskara (Nafarroa) irakaskuntza espezialitatea ezartzen duen Foru Agindua aldatzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 14an. Antolamenduko, Prestakuntzako eta Kalitateko Zerbitzuko Zuzendaria, Pablo Arriazu Amat.

(Sinadura jatorrizkoan ageri da)